

Politikaren kontzeptu karlista bat berriro

• JOXE AZURMENDI •

[FILOSOFIA]

Hasieran demokrazia zen. Eta buruxkilaren leize handiaren gainean ongia eta gaizkia berezi zituen, eta gutxiengo eta gehiengo. Eta gehiengoaren arrazoia eta ongia. Hala izan zen lehen eguna. Eta gehiengoak kondenatu egiten zuten goraki desarrazoia eta gaizkia.

Gensiararen hastapena, politikaren kreazioa; Espainia berria.

Bitartean, Espainia berriago bat ere badaukagu, azken-azken egunotakoa. Kurioso da —ez dakit erreparatu duzuen—, nolako eboluzioak egon diren denbora gutxian. Intelektualek betidanik garbi zeukaten: demokrazia sakratua da. (Inoiz ez da Espainia esaten: demokrazia esaten da beti). Gehiengoaren egia eta zuzentasuna. Urteetan hori jasan dugu. Etorri da Lizarra-Garazi etorri, orain gehiengoak ez da beren gustukoa. Eta gehiengoak ez da demokraziaren esentziala. Demokrazia, gehiengoaren oinarritzen zen sistema razionala izatetik, etengabe dena eztabaidari azpiratzen dion razionalitatearen sistema izatera pasa da. Esentziala orain eztabaida da. Eta ideia polita da hori, hedabideen nagusiaren morroiaren beste aitzakia bat ez balitz, gehiengoaren aitzakia bat zen bezalaxe.

Diskurtso demokratikoaren beste puntu askotan suma daitezke eboluzio paraleloak. Atentzioa ematen duena, hauxe da beste bat: «ez dugu hitzegingo biolentzia praktikatzeko dutenekin!», esaten zuten kerubin intelektualek eta serafin politikoez lehen. Orain suetena dago, ETak ez du biolentziarik praktikatzeko. «Ez dugu hitzegingo biolentzia kondenatzeko ez dutenekin!», esaten da orain. Kondenaren hau, korapilo erabakiorra bilakatu da egunotako eztabaidan.

Ez da nahikoa biolentzia ez praktikatzeko: kondenatu egin behar da. Ez da nahikoa lapurretariak ez egitea; jabeago pribatua giza duintasunaren salbazioa dela, aitortu behar da publikoki. Bestela ez zara fidatzekoa.

Eta hau oso polita da, zeren-eta, ez hitzegiteko lehen ematen ziren arrazoi-iturako haiek guztiak: «ezin dezakegu demokrazia xantaxatzea onartu», etab., etab., ez dute ja balio. Isiltzeak ez du inor xantaxatzen. Are, holako egoera batean isiltzea da seguruenik demokratikoa, eta —demokrazian— razionalena. Biolentzia kondenatuz hastekotan, demokraziaren sorrera kondenatuz hasi beharko bagenuke. Kondena publikoa

esigitzea behintzat karlista hutsa da, hitzaren adiera txarrean.

Ez ditzagun nahastu berriro politika eta erlijioa. Ni egon nindeke nire barruan poz-ozik biolentziagatik, eta hiritar demokrata erduzkoa izan. Agian kazeta edo Alderdiko estratega bat baino gehiagoren kasua horixe da. Izan ere, Estatuak bizitza publikoa arautzen du, ez nire intimitatea. Pentsamendua edo sentimenduak dominatu nahi izatea, politika eta erlijioa konfunditzea da.

Demagun lapur batek ebatsi egin duela. Agian marxista da eta jabeago pribatua ez du aintzat hartzen. Zilegi da demokrazian marxista izatea, ezta? Bai, baina lapurtzea ez.

Marxista izan beharrik ere ez dago, Rousseauarekin, jabetza oro lapurretara gainean jasoa dela, pentsatzeko. Edo Platonekin, jabeago pribatua dela gerra gehien iturburua. Edo ebanjelioekin, diruzalatasuna eta jabetza dela gizakiaren hondamena. Etab. Zilegi dut jabeagoaz maisu horiek bezala pentsatzea. Ez dira razionalitatearen maisu txarrenak mendebalean. Estatuarentzat berdin da zer pentsatzen duan, nik ez lapurtzea nahikoa da. Zergatik ez dudana lapurtzen, ez da bere asuntua. Nire printzipio moralengatik izan daitezke, edo polizia- beldurragatik bakarrik. Hori aski da Estatuarentzat. Biolentzia baino efikazagoa juzga nezake beste jokabide bat, eta ez dut biolentzia kondenatzen; bakarrik, ez dut praktikatzeko, basta. Estatuarentzat aski da. Estatuari ez diot nire kontzientzia ematen. Diziplina hiritarra ematen diot.

Estatuak edo Zuzenbideak harreman publikoak arautzen ditu, ez kontzientziak. Ez lapurtzea, eskatzen du; ez, jabeago pribatuaren ontasunaren aitortza publikoak egitea. Estatuak ez da Eliza. Alegia, Estatu demokratikoa da, Elizak ez. Estatu demokratikoa da, Elizak ez. Estatu frankista edo teokratiko zaharra, eta orain *restauratu* digutena, Eliza da.

Kontua ez da berria kultura demokratiko gabeko demokrazia honetan. Gerra aurrean Elizak eta Alderdi katolikoek izaten zituzten *gaiztoen* madarikatzeko eta kondenatzeko zelo sutsu horiek. Alegia, ongiaren eta zuzenaren izenean bes-

teen kontzientzi barruak inbaditu eta bortxatu gura horiek (gaiztoak konbertitzera edo infernura joatera behartzeko). Maritain katoliko liberala zen. Antifrankista. Eta ja gerra zibillaren bezperetan



XIX. mendean politika espainola behin eta berriz errefuxiatu da erlijioaren azpian. Hori zen karlismoa. Orain moralinapean errefuxiatzen da

kritikatu zuen oso gogor integrismo katoliko hori, Humanismo integral sonatuan. Hark zioenez, mentalitate primitiboaren sektarismoa da hori, *fariseismo naibo* bat. Ez moralarekin eta ez demokraziarekin zerikusirik daukana, talde itxiko estu-keriarekin baizik. Zenbat primitiboago talde sozialaren mentalitatea, hainbat moral itxiagoa. Taldearen segurantzia moral dogmatikoa kraskatzen duen eror inork eginez

gero, hainbat larriagoa *gaiztoen* kondena publikoaren eskea, tximino guztiak garraisika, kide bakoitzak bere purutasuna zeinu agiri batekin gutzietie erakus diezaien. Bestela, *gaizto* batzuen diferentziak barruan eragin duen krisititik, ezin izaten da sosegatu tribu arotzatu.

Espainian, lehenago ere, protestanteak izatea baino txarragoa zen protestanteak ulertzea. Razionalistak baino gaiztoagoak, razionalistak konprenitzen zituztenak. ETA baino EH okerragoa... Betiko integrismoa. XIX. mendean politika espainola behin baino gehiagotan errefuxiatu da erlijioaren azpian. Hori zen karlismoa. Orain moralinapean errefuxiatzen da.

Alderdi batzuk integrismo haietatixe datoz, frankismoa bitarteko, eta problema gabe ulertzen da diskurtso modu horrekin berriro agertzea, eretia izan duten orduko. Nekezago ulertzen dena da, tradizio kritikoaototik datozen, edo etorri berak lehen, beste batzuek, nola erori diren karlismo horretan, oportunitate piska bategatik bakarrik. XX. mendean zehar, sozialismo europarra marxismoa abandonatuz joan da, hura kondenatu gabe, iraultzaren ideia kondenatu gabe, biolentzia proletarioaren ideia ere kondenatu gabe (greba ez da biolentzia?), etab., eta horregatik ez du inork esaten, sozialismoa antidemokratikoa denik. Frantzia oraintxe Alderdi Komunista barne-eboluzioan dago: *mea culpak* eta kondenak esigitzen dituztenak betiko integristak dira. Jospinek defendatu egiten ditu.

Egia da, hori dena European gertatzen dela. Eta Europa urrutiko beste nonbait balitz bezala, mintzatu ohi dira gure politikoak beren diskurtsoetan («European egiten dute», «Europara joateko»), beraiak Afrikan daudela, kontzientzia garbiarekin. Eta agian Afrikan ez daude, baina XIX. mendean bai.



Etorri da Lizarra-Garazi etorri, orain gehiengoak ez da beren gustukoa. Eta gehiengoak ez da demokraziaren esentziala